

*The Susa News*. 1. zenbakia. 1986.eko ekaina. Donostia.

Hain aspaldi ez dela, *Egan*-era kolaborazioa eskainiz zeterren gazte bati entzun nion, *Susa*-ri bere lanak emateaz asper turik zegoela, gazte itxuraz agertuarren beraiek uste baino zaharkituagoak zirela mentalitatez. Baina nik ez dut holako eritzirik. Gaztetasuna uka ezinezkoa zaio *Susa* taldeari. Bai, *Egan*-en igaz kolaboratu zutenetik gaztenak hamazazpi urte baizik ez zituen, baina zaharrenak larogei. Egia esan, guk ez dugu mugarik jartzen, ez adinez eta ezta ere modaz. Baina, aitortu beharrezkoa zaigu, *Susa*-koek orohar gazte direla, beren adin inguruko mugimenduen ordezkari eta hori oso inportantea dela euskal literaturarentzat. Hala ere, Gunilla Von Bismark izenpetzen duenaren esanak esan, Omar Khayyam, Omar Nabarro bera baino gaurkoagoa iduritzen zaidala. Eta eritzi hortara (ez hortero) heltzeko urteak behar badira, hori merke eta nahi baino lasterrago berez datorren gauza da. Beraz, gaitzik baldin badu ere, zendakai erraza du eta ez da inor larritzekoa. Bitartean, P. Lafittek hil baino lehenxeago egin zitzaion omenaldian eskerrak ematen esan zituen hitzak oroituko ditugu: «Biba gazteak!».

Mundu honetan, pentsatzen duen gazteak sufritzen du eta horrek ematen dio gazte delarik ere mentalitatez zahar itxura. Baina, sorkundezko literatura garatuko bada, hala behar ere. Gutierrez ere badakite burua ez dela txapela erabiltzeko egina eta horiegatik ezingo da esan: txapela buruan eta ibili munduan.

Ale hau egunkari gisa agertu da, 42 x 31,5 zentimetro neurrizko lau orrialdek soilik osatzen duela. Taxuz aurkeztua

dator eta biziki gustatu zait. Aurre azalpenean dionez: «Konplizitate hari bat osatu nahi genuke orain jaio den publikazio honen bitartez, abiapuntu gisa honoko hau erabiliz: literaturak duen oinarrizko premia bakarra, ahalik eta jende gehienaren animoa da, idazteko nahiz irakurtzeko, eta bide batez irakurle izatetik idazle izatera dagoen distantzia jende gehienak uste duena baino askoz ttipiagoa dela. Mito asko dago literaturaren munduan, eta idazle izateko ez dakigu zein baldintza behar direla pentsatzea horietako bat da. Idatz eta publikatu itzazu ipuin pare bat eta ondoren hitzgingo dugu ea horretarako balio duzun, ez pentsa kontrakorik frogarik egin gabe».

Zeharo bat gatoz aitormen horrekin eta ezer erastekotan ere, idazle bezala zerbait izan nahi duenarentzat, irakurri, esango genuke. Askok irakurri eta bere ingurumena gogotsu so egin. Ez dago beste misteriorik, kontatzeko zerbait biltzea baino, naiz kanpotik bereganatzen duenetik eta naiz bere gogoeta soiletik sortzen duenetik. Eta, *Susa*-koek ondo egiten dute, oso ondo, hain guti irakurtzen den herri honetan ere gaztea idazle izatera bultzatzea.

Idazletza bultzaratze hori ez da idea txarra, baina ahal delarik alearen atzekaldean datorren editorialeko eskribidorearena eredutzat hartu gabe. *Susa* aldizkarietatik harturik hain zati egokiak datozen ale horretan kaka-mokordoa dirudi editorial horrez. Beno, ongi letorke bederatzigarren dialektoa sortzea helburu badu. Bestalde, lastima handia litzake euskara batuari eta ifarraldeko gibelak ematea. Baina, editorialgintzan ari direnek gibelandiak baldin badituzte, behar bada hala izanen da.

Dena den, idea ona izan dute beren ekintzen zabalkundearako, lehen *Susa* aldizkarietan argitaratutako zati hunkigarriekin irakurleak, batez ere irakurle gazteak, zirraraeraziz adizkari hau plazaratzea. Eta, era berean, *Susa* liburu sailak edo naiz bestek, gazte jendeari begira argitaratzen dituzten liburu berrien erreseñak agertzea, bakoitzaren gai eta edukienez informatuz. Hauenak dira titulu berriok: Andolin Eguzkitza, Iñigo Aranbarri, Eukene Martin, Gotzone Sestorain,

Xabier Mendiguren Elizegi, Alfonso Sastre, Mikel Dupac, Jean Louis Davant, Peter Bichsel eta Itxaro Borda.

Meriturik aski badute *Susa*-koek beren ekintzetan eta, gure aldetik ez pentsa, irakurle, ezelango bedeinkazio edo gomendiorik behar dutenik, zuriketarik gabe esan genezake beren bidearen berri badakitela gure aitapontekotasunik gabe ere, eta gomendiorik ematekotan irakurlearentzako emango genuke, harpidetza eginaz lagun dezaten. Gogoan izan gaur egungo euskal kulturaren munduan abandonatuen daudenak idazleak direla eta hala ere beren kabuz ari direla ahal bezala aldizkariak bultzarazten. Ez genuke nahi inondik ere *Literatur Gazeta*-rekin gertatu dena gertatzerik. Horregatik, beste inongo laguntzarik gabe, harpidetza soilarekin iraunaraztekoa baldin bada, guk ere eskari hori luzatzen dugu *Susa*-ren alde. Beren aldizkariak irakurle amorratuen eskuetan erori nahi duelarik, horrenbeste eskatuko genioke euskal irakurleari.

*Otsalar*